

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Nestor Arana Arexolaleiba
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko uztailaren 20an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gaitzerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Edorta Barandiaran Garcia jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 20 de julio de 2017 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Edorta Barandiaran Garcia

1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2017ko uztailaren 13ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

2.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA INFORMAZIOAREN, ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO.

Sina dezagun Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazio Zerbitzuak proposatu duen informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena ikusi da. Hitzarmenaren helburua da baldintza eta irizpide orokorrak finkatzea, sinatzaileek, alde batetik, ematen dituzten zerbitzu elektronikoaren aprobetxamendu erkidea egin dezaten; eta, bestetik, informazioa truka dezaten beraien artean.

Hau da hitzarmenaren xede nagusia: edozein administraziok egin dituen dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, araudi arautzaile aplikagarriek eskatzen ez dituzten datuak edo dokumentuak edo lehendik beste administrazio bati eman zaizkionak ez emateko eskubidea egikaritzea, zeinaren onarpen-presuntzioa izango den, prozeduran kontraktasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako baldintzetan.

Ados egonik, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

BIGARRENA.- Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkartzan.

3.- LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA IZENPE S.A.-REN ETA UDALAREN ARTEAN.

Erregistro erakunde bezala arituz, identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoak egiten laguntzeko IZENPE S.A. enpresarekin sinatu beharreko hitzarmena ikusi da.

Ados egonik, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Erregistro erakunde bezala arituz, identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoak egiten laguntzeko IZENPE S.A. enpresarekin hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA.- Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

4.- 2016KO KONTU OROKORRAK ONARTZEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2016ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, Udalaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera, eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren aurrekontuaren kitapenak.

2017ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2017ko ekainaren 15ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2016ko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2017ko ekainaren 9an egindako Kontu Batzorde Bereziaren hasiera batean onartu ondoren, eta 2017ko ekainaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igarota hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

5.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturata egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

Bidezkoak ez izateagatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 71,35 €

(*)KONTZEP/EPEA/ZK	ZENBATEKO	ZERGADUNA	ZERGATIA
IA	A (€)		
001/201601/2426	71,35	San Miguel Zubieta Alejandro	Ibilgailuak 2015eko baja tenporala du.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzailtza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatutaz edo baliogabetutaz deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

HIRUGARRENA.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

6.- “GAZTELEKU” ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.

Udalbatzarrak 2014ko irailaren 23an egindako bileran erabaki zuen NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA (GAZTELEKUA) KUDEATZEKO kontratua 42.000 €-tan (gehi BEZaren 0 €) esleitzea "TXATXILIPURDI" HAUR ETA GAZTE EKINTZAK-AED-ELKARTEARI. Kontratua baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe zegoen. Kontratuaren hasierako iraupena urte betekoa zen.

Administrazio baldintza partikularren agiriko 2. baldintzaren arabera, epe hori beste hiru alditan luza zitekeen urtebetez. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikulua arabera.

Udalbatzarrak, 2015eko irailaren 22an eta 2016ko irailaren 27an, kontratua urtebetez luzatzea erabaki zuen.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak diktamena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua beste urtebetez luzatzea.

Aipatutako artikulua arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Kultura, Euskara eta Kirolak batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA (GAZTELEKUA) KUDEATZEKO zerbitzua emateko kontratua URTEBETEZ luzatzea, baldintza agiriko bigarren baldintzan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Aurrez esandako luzapenari dagokion gastua baimentzea eta konprometitzea. Gastu hori 42.209,26 eurokoa da, eta udal aurrekontuko 0400.227.337.60.20 partidaren kargura egingo da.

**7.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK
BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA
ARAUTZAILEKO 7 ERANSKINA “UR HORNIDURAGATIKO TASA” ALDATZEARI
HASIERAKO ONARPENA EMATEA.**

Hitza eman ondoren, Josu Ezkurdiak “ur hornidurarengatik tasa” aldatzeko proposamena egiteko azken Gobernu eta Finantza batzordean izandako arrazoiak azaldu ditu.

Horrela, esan du gaur egungo tarifak denon adostasunarekin onartu zirela, eta hiru izan zirela erabaki hori hartzeko jarritako helburuak: tasa horrengatik biltzen zen diru kopurua mantentzea, gutxi kontsumitzen duena saritzea eta gehien kontsumitzen duena zigortzea. Lehenengo bi hiruhilekoak fakturatu ondoren, esan du ikusten dela gehiegi zigortu zaiola gehien kontsumitzen duenari, eta horrengatik proposatzen dela tasaren zenbatekoa murriztea.

Jakinarazi du 4. tartera (90 m³ edo gehiago) iristen diren zergapekodunen kopurua % 0,8 ingurukoa dela, eta proposatutako murrizketak ez duela eragin nabarmenik diru bilketari dagokionez.

Aitor Zubizarretak erantzun dio edozein proposamen egin baino lehen proposamena gainerako taldeekin adostu beharko litzatekeela. Adierazi du tarte horretako kontsumitzaileen kopurua % 0,8 ingurukoa bakarrik izan arren ere, beharrezkoa ikusten duela kontsumo horren arrazoiak ezagutzea, igerilekua betetzeko baldin bada ez duelako egoki ikusten tarifa murriztea. Orain aldaketarik ez egitea proposatzen du, eta datorren urtera begira gaia hobeto aztertzea.

Josu Ezkurdiak onartu egin du Aitor Zubizarretak egindako proposamena, eta adierazi du talde guztien adostasunarekin jardun nahi duela, eta batzorde informatzailearen proposamena erretiratu du gaia hobeto aztertzeko 2018rako ordenantza fiskalak aztertzerakoan.

Alkateak esan du askotan laugarren tarteko tarifa aplikatzen dela kontagailuak zaharrak direlako eta oso zaila horiek irakurtzea, eta horrengatik, hainbat hiruhilekoren kontsumoak pilatzen zaizkiela.

Eztabaida amaituta, aho batez erabaki da gaia aztertu gabe uztea eta 2018rako ordenantza fiskalak aztertu behar direnean gaia aztertu eta eztabaidatzea, eta matxura batengatik kontsumoa ez ohikoa den kasuetan tratamendu berezia emateko aukera aztertzea.

8.- “BERBALAGUNAK EGITASMOA” ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- “BERBALAGUNAK EGITASMOA” izeneko zerbitzua EUSKALTZALEEN TOPAGUNEARI esleitzea honako baldintzetan:

- **Iraupena:** Zerbitzua 2017ko irailaren eta 2018ko ekainaren bitartean eskainiko da.
- **Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 3.790,15 eurokoa izango da (BEZ barne) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: zerbitzuaren % 40a, hau da, 1.516,06 €, 2017an ordainduko dira, eta gainerako % 60a, hau da, 2.274,09, 2018an. Emandako zerbitzuak hileroko ordainduko dira. Horretarako, esleipendunak aurrez faktura aurkeztu beharko du, zerbitzuko arduradunaren onarpena izan beharko duena.
- **Txostenak:** Proiektuari buruzko balorazio txostena aurkeztu beharko da 2017ko abenduan eta 2018ko ekainean.
- **Baldintza teknikoak:** Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Beraz, kontratuaren xedea betetzeko herritarrekin eta udalarekin sortzen diren harreman guztiak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskara hutsean izango dira. Gainera, proiektua gauzatzeko Topaguneak kontratatuko dituen langileek, proiektuak euskaraz gauzatzeko behar besteko hizkuntza maila izan beharko dute.

Bigarrena.- 1.516,09 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.335.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzekoa, hau da, 2.274,09 €, 2018. urteko aurrekontuaren kontu.

Hirugarrena.- Ahalmena ematea Alkateari aurreko baldintzetan oinarritutako administrazio kontratua sina dezan.

9.- “AUZKOKO EGITASMOA” ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- “AUZOKO EGITASMOA” izeneko zerbitzua EUSKALTZALEEN TOPAGUNEARI esleitzea honako baldintzetan:

- **Iraupena:** Zerbitzua 2017ko irailaren eta 2018ko ekainaren bitartean eskainiko da.
- **Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 8.976,04 eurokoa izango da (BEZ barne) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: zerbitzuaren % 40a, hau da, 3.590,42 €, 2017an ordainduko dira, eta gainerako % 60a, hau da, 5.385,62, 2018an. Emandako zerbitzuak hileroko ordainduko dira. Horretarako, esleipendunak aurrez faktura aurkeztu beharko du, zerbitzuko arduradunaren onarpena izan beharko duena.
- **Baldintza teknikoak:** Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Beraz, kontratuaren xedea betetzeko herritarrekin eta udalarekin sortzen diren harreman guztiak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskara hutsean izango dira. Gainera, proiektua gauzatzeko Topaguneak kontratatuko dituen langileek, proiektuak euskaraz gauzatzeko behar besteko hizkuntza maila izan beharko dute.

Bigarrena.- 3.590,42 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.335.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzekoa, hau da, 5.385,62 €, 2018. urteko aurrekontuaren kontu.

Hirugarrena.- Ahalmena ematea Alkateari aurreko baldintzetan oinarritutako administrazio kontratua sina dezan.

10.- “AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA EGITASMOA” ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- “AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA EGITASMOA” izeneko zerbitzua GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEARI esleitzea, honako baldintza hauetan:

- **Iraupena:** Zerbitzua 2017ko irailaren eta 2018ko ekainaren bitartean eskainiko da.

- **Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 6.485,66 eurokoa izango da (BEZ barne) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: zerbitzuaren % 40a (hau da, 2.594,26 €) 2017ko abenduan ordainduko da eta gainontzeko %60a (hau da, 3.891,40 €) 2018ko ekainean. Horretarako, esleipendunak aurrez faktura aurkeztu beharko du, zerbitzuko arduradunaren onarpena izan beharko duena.
- **Baldintza teknikoak:** Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Beraz, kontratuaren xedea betetzeko herritarrekin eta udalarekin sortzen diren harreman guztiak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskara hutsean izango dira. Gainera, proiektua gauzatzeko Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak kontratatuko dituen langileek, proiektuak euskaraz gauzatzeko behar besteko hizkuntza maila izan beharko dute.

Bigarrena.- 2.594,26 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.335.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzekoa, hau da, 3.891,40 €, 2018. urteko aurrekontuaren kontu.

Hirugarrena.- *Ahalmena ematea Alkateari aurreko baldintzetan oinarritutako administrazio kontratua sina dezan.*

11.- GALDE-ESKEAK

11.1- KULUNKA HAUR ESKOLA

Aitor Zubizarretak jakinarazi du matrikulazio falta dela-eta, KULUNKAREN egoera zail samarra dela. Hurrengo batzorde informatzailean jendeak beraien seme-alabak hartzaindegi horretan matrikulatzera animatzeko dibulgazio kanpaina egiteko aukera aztertzea proposatu du.

Josu Ezkurdiak erantzun dio Udala prest dagoela legez egin daitekeena egiteko ikastetxe horri edo beste edozeini laguntzeko, eta ez duela inolako arazorik proposamena onartzeko, baina, esan du, gehiago zehaztu beharra dagoela.

Alkateak jakinarazi du ez duela egoeraren berri izan joan zen uztailaren 11ra arte, eta berehala eman ziela horren berri Aitorri eta Gobernu eta Finantza batzordekideei. Nabarmendu du denbora gutxi igaro denez, ez duela arazoa konpontzen laguntzeko gestio askorik egiteko denborarik izan, baina, ordutik harremanetan dagoela Eusko Jaurlaritzarekin ze aukera dauden ikusteko.

11.2. SANTA MARINAKO APARKALEKUA

Aitor Zubizarretak esan du Santa Marinako aparkalekua itxi ondoren hainbat neurri hartu direla (herriko hainbat lekutan aparkaleku berriak egitea eta Arbiñosten kotxeak aparkatzen uztea), eta uste du neurri horiekin lehentasuna ematen zaiela ibilgailuei eta bigarren maila batean uzten direla oinezkoak. Uste du gaia denon artean landu beharra dagoela, hausnarketa sakonagoa merezi duela.

Josu Ezkurdiak erantzun dio Santa Marina itxita -hainbat batzordetan aztertutako gaia-, herriak 80 bat aparkaleku-plaza galdu dituela, herriko hainbat gunetan 40 bat aparkaleku-plaza egokitu direla, eta orain ikusi nahi dela ea 40 horiek nahikoa diren edo plaza gehiago jartzeko benetako beharra dagoen. Esan du edozein erabaki hartu baino lehen udal talde guztiekin hitz egingo dela, proposamenen berri emango zaiela eta inolako aparkalekuren bat egokitu baino lehen denok ados jartzen saiatuko direla. Arbiñostekoari dagokionez, aipatu du herrian jende gehien egoten den egunetarako egokitu dela, eta nola erabiltzen den ikusi nahi dutela.

Aitor Zubizarretak uste du jendea kontzientziatu behar dela kotxea beti etxe ondoan ez uzteko distantziak laburrak direnean.

Josu Ezkurdiak berriz ere esan du orain arte hartutako neurriek zer nolako emaitza duten ikusi nahi dutela, nola erantzuten dieten herritarren beharrei, eta beharrezkoa balitz, ez duela inolako eragozpenik lehenengo egoerara itzultzeko.

Rafael Bernalek uste du orain dela herriko mugikortasun arazoa birplanteatzeko unea, benetako azterketa bat egin eta horren arabera jokatzekoa.

11.3.- AURREKONTUEN ONARPENA Zubizarretak gogorarazi du 2017ko aurrekontua onartu zenean erabaki zela 2018ko aurrekontua lantzen ekainean hasiko zirela eta parte hartze prozesu bat irekiko zela.

Josu Ezkurdiak erantzun dio eguneroko lanak galarazi diola egutegia betetzea, baina, hala ere, uztailera batzorde informatzailean egin zuela 2017ko aurrekontuaren exekuzio egoeraren deskargua 2018ko aurrekontua prestatzen joan ahal izateko, eta iraileko batzordean gaia jorratzen hasiko direla aurrekontua ahalik eta adostasun zabalarekin onartu ahal izateko.

Aitor Zubizarretak galdetu dio ez al duen herritarren iritzia kontuan izan behar.

Josu Ezkurdiak erantzun dio bere garaian egin zituztela bilerak herritarrekin eta herriko talde eta elkarteekin, eta bilera horietan jaso ziren proposamen eta iradokizunak kontuan izango direla datozen urteetako aurrekontuetan.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:25ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 13 de julio de 2017 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

2.-FIRMA DE CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y EL AYUNTAMIENTO PARA LA PRESTACIÓN MUTUA DE SERVICIOS DE INFORMACIÓN. ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN ELECTRÓNICA.

Se ha visto el texto del convenio de colaboración para la prestación mutua de servicios de información, administración y gestión electrónica, propuesto por el Servicio de Modernización de la Diputación Foral de Gipuzkoa para formalizar entre el Gobierno Vasco y este Ayuntamiento, cuyo objeto es establecer los términos y las condiciones generales para un aprovechamiento común de los servicios electrónicos que prestan las partes firmantes y para el intercambio de información entre ellas.

La finalidad principal del Convenio es facilitar el ejercicio del derecho a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración, con presunción del consentimiento si no hay oposición expresa en el procedimiento o no hay una ley especial aplicable que requiera el consentimiento expreso, en los términos del artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

Hallado conforme, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Formalizar un nuevo convenio de colaboración con la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la prestación mutua de servicios de información, administración y gestión electrónica

SEGUNDO: Facultar al Alcalde D. José Ramón Zubizarreta Alegria para que firme dicho convenio en nombre y representación del ayuntamiento de Eskoriatza.

3.-FIRMA DE CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE IZENPE S.A. Y EL AYUNTAMIENTO.

Se ha visto el texto del convenio a formalizar con IZENPE S.A. para colaborar en la expedición de los medios electrónicos de identificación y firma, actuando como Entidad de Registro.

Hallado conforme, de conformidad con la propuesta elevada desde la comisión informativa de Gobierno y Finanzas , el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

PRIMERO.- Formalizar con IZENPE S.A. el convenio propuesto para colaborar en la expedición de los medios electrónicos de identificación y firma, actuando como Entidad de Registro.

SEGUNDO: Facultar al Alcalde D. José Ramón Zubizarreta Alegria para que firme dicho convenio en nombre y representación del ayuntamiento de Eskoriatza.

4.-APROBACIÓN DE LAS CUENTAS GENERALES 2016.

En cumplimiento del artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Comisión Especial de Cuentas procedió al examen de las Cuentas y Estados contables del ejercicio 2015, integrada por las cuentas anuales y estados contables de la propia Corporación, junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como las liquidaciones del Presupuesto del Ayuntamiento.

En sesión de fecha 9 de junio de 2017 la Comisión Especial de Cuentas dictaminó favorablemente la aprobación de las citadas cuentas.

Mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 15 de junio de 2017, fueron sometidas a información pública por término de quince días, sin que durante dicho plazo se interpusiese alegación a reclamación alguna.

Con base a cuanto antecede, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, el Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

“Aprobar definitivamente el expediente relativo a las cuentas generales del Ayuntamiento correspondientes al ejercicio 2016, tras su aprobación inicial en la Comisión Especial de Cuentas celebrada en fecha 9 de junio de 2017 y tras haber transcurrido el plazo establecido de información pública desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 15 de junio de 2017, sin que se haya producido reclamación ni observación alguna contra el expediente inicialmente aprobado.”

5.-BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS.

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se resumen:

Baja de derechos pendientes de cobro **por improcedente:** 71,35 €

(*)CONCEP/PLAZO/Nº	IMPORTE(€)	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
001/201601/2426	71,35	San Miguel Zubieta Alejandro	El vehículo tiene baja temporal de 2015.

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

TERCERO.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

6.-PRÓRROGA DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE GAZTELEKU

Mediante acuerdo plenario de fecha 23 de setiembre de 2014 se acordó adjudicar a "TXATXILIPURDI" HAUR ETA GAZTE EKINTZAK-AED-ELKARTEA el contrato de GESTIÓN DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS POLIVALENTES DE ADOLESCENCIA (GAZTELEKU) por un precio de 42.000 euros más 0 euros , correspondientes al IVA, y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las

especificaciones contenidas en la proposición del contratista. El plazo inicial de duración del contrato era de 1 año.

De acuerdo con la cláusula dos del pliego de cláusulas administrativas particulares, dicho plazo era prorrogable por otros tres periodos de un año cada . La prórroga debe ser acordada expresamente de acuerdo con el art. 23.2 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

El Pleno, en fecha 22 de setiembre de 2015 y en fecha 27 de setiembre de 2016 , adoptó acuerdos de prórroga anual del contrato.

Por parte del servicio encargado de la gestión del contrato, se emite dictamen en el que se considera conveniente la prórroga por otro año más el contrato.

De acuerdo con al artículo citado, la prórroga la acordará el órgano de contratación, siendo en este caso el Pleno.

De acuerdo con lo anterior, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Deportes y Euskera, y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Prorrogar nuevamente el contrato para la GESTIÓN DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS POLIVALENTES DE ADOLESCENCIA (GAZTELEKU) por un periodo de UN AÑO, de acuerdo con lo establecido en la cláusula dos del pliego y en el art. 23 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público

SEGUNDO.- Autorizar y comprometer el gasto correspondiente a la prórroga antedicha por importe de 42.209,26 € euros, con cargo a la partida 0400.227.337.60.20 del presupuesto municipal.

7.-APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE DEL ANEXO 7 DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA TASA POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS: “Tasa por suministro de agua”.

Concedida la palabra, Josu Ezkurdia explica las razones por las que en la última comisión informativa de Gobierno y Finanzas se acordó elevar propuesta de modificación de la “Tasa por suministro de agua.

Así, dice que las tarifas actuales fueron aprobadas con el consenso de todos y que fueron 3 los objetivos marcados para llegar a dicho acuerdo: mantener la recaudación por dicha tasa, premiar al que consume poco y penalizar al que más consume. Facturados los 2 primeros trimestres, dice, se ha observado que se ha penalizado demasiado al que más consume y que por ello se plantea reducir el importe de la tasa.

Hace saber que el número de contribuyentes que llega al 4º tramo (90 m³ o más) del consumo doméstico ronda el 0,8% y que la reducción propuesta no tiene incidencia significativa en la recaudación.

Aitor Zubizarreta le responde que antes de hacer alguna propuesta debiera de consensuarse la misma con el resto de grupos. Manifiesta que si bien el número de consumidores de dicho tramo ronda sólo el 0,8% ve necesario conocer los motivos de dicho consumo porque si resulta que es para llenar la piscina no ve oportuno reducir la tarifa. Plantea no modificar ahora y cara al año que viene analizar mejor el asunto.

Josu Ezkurdia acepta el planteamiento que hace Aitor Zubizarreta, manifiesta querer seguir actuando con el consenso de todos los grupos y retira la propuesta de la comisión informativa en aras a analizar mejor el asunto cuando se traten las ordenanzas fiscales para 2018.

El Alcalde añade que mucha veces se aplica la tarifa del cuarto tramo porque son contadores viejos a cuya lectura es difícil acceder y se les acumulan los consumos de varios trimestres.

Terminado el debate, por unanimidad se acuerda dejar el asunto sobre la mesa y en el momento de tratar las ordenanzas fiscales para el año 2018 analizar y debatir el asunto, así como estudiar la posibilidad de dar un tratamiento especial en aquellos supuestos en los que el consumo ha sido extraordinario y motivado por una avería.

8.-ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO “BERBALAGUNAK EGITASMOA”

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Euskera y Deportes, el pleno, por unanimidad ACUERDA:

Primero: Adjudicar a EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA la prestación del servicio “BERBALAGUNAK PROIEKTUA” en las siguientes condiciones:

- **Duración:** El servicio se ofrecerá entre setiembre de 2017 y junio de 2018.
- **Precio y plazos de pago:** El coste total del servicio será de 3.790,15 euros (IVA incluido), y los plazos de pago serán los siguientes: el 40% del servicio, esto es, 1.516,06 €, se abonará en 2017, y el 60% restante, esto es, 2.274,09 €, en 2018. Los servicios prestados se abonarán mensualmente. Para ello, previamente el adjudicatario presentará factura que deberá contar con la aprobación del responsable del servicio.
- **Informes:** Durante el mes de diciembre de 2017 y el mes de junio de 2018 deberá de presentarse un informe de valoración sobre el proyecto.
- **Condiciones técnicas:** Las características propias de la prestación objeto de este contrato exigen que el contrato se lleve a cabo necesariamente en euskera. Por lo tanto, todas las relaciones (tanto escritas como orales) que se generen con los ciudadanos y con el Ayuntamiento para cumplir el objeto del contrato serán íntegramente en euskera. Además, los trabajadores que contrate Topagunea para realizar el proyecto deberán de tener el nivel lingüístico suficiente para llevar a cabo el proyecto en euskera.

Segundo: Aprobar el gasto de 1.516,09 € con cargo a la partida 0400.226.335.00.08 del presupuesto de este año, y el resto, esto es, 2.274,09 €, con cargo del presupuesto del 2018.

Tercero: Facultar al alcalde para firmar el contrato administrativo en base a las condiciones anteriormente citadas.

9.-ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO “ AUZOKO EGITASMOA”

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Euskera y Deportes, el pleno, por unanimidad ACUERDA:

Primero: Adjudicar a EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA la prestación del servicio “ AUZOKO PROIEKTUA” en las siguientes condiciones:

- **Duración:** El servicio se ofrecerá entre setiembre de 2017 y junio de 2018.
- **Precio y plazos de pago:** El coste total del servicio será de 8.976,04 euros (IVA incluido), y los plazos de pago serán los siguientes: el 40% del servicio, esto es, 3.590,42 €, se abonará en 2017, y el 60% restante, esto es, 5.385,62 €, en 2018. Los servicios prestados se abonarán mensualmente. Para ello, previamente el adjudicatario presentará factura que deberá contar con la aprobación del responsable del servicio.
- **Condiciones técnicas:** Las características propias de la prestación objeto de este contrato exigen que el contrato se lleve a cabo necesariamente en euskera. Por lo tanto, todas las relaciones (tanto escritas como orales) que se generen con los ciudadanos y con el Ayuntamiento para cumplir el objeto del contrato serán íntegramente en euskera. Además, los trabajadores que contrate Topagunea para realizar el proyecto deberán de tener el nivel lingüístico suficiente para llevar a cabo el proyecto en euskera.

Segundo: Aprobar el gasto de 3.590,42 € con cargo a la partida 0400.226.335.00.08 del presupuesto de este año, y el resto, esto es, 5.385,62 €, con cargo del presupuesto del 2017.

Tercero: Facultar al alcalde para firmar el contrato administrativo en base a las condiciones anteriormente citadas.

10.-ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO “AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Euskera y Deportes, el pleno, por unanimidad ACUERDA:

Primero: Adjudicar a GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA la prestación del servicio “ AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA PROIEKTUA” en las siguientes condiciones:

- **Duración:** El servicio se ofrecerá entre setiembre de 2017 y junio de 2018.
- **Precio y plazos de pago:** El coste total del servicio será de 6.485,66 euros (IVA incluido), y los plazos de pago serán los siguientes: el 40% del servicio, esto es, 2.594,26 €, se abonará en diciembre de 2017, y el 60% restante, esto es, 3.891,40 €, en junio 2018. Para ello, previamente el adjudicatario presentará factura que deberá contar con la aprobación del responsable del servicio.

- **Condiciones técnicas:** Las características propias de la prestación objeto de este contrato exigen que el contrato se lleve a cabo necesariamente en euskera. Por lo tanto, todas las relaciones (tanto escritas como orales) que se generen con los ciudadanos y con el Ayuntamiento para cumplir el objeto del contrato serán íntegramente en euskera. Además, los trabajadores que contrate Gipuzkoako Bertsozale Elkarte para realizar el proyecto deberán de tener el nivel lingüístico suficiente para llevar a cabo el proyecto en euskera.

Segundo: Aprobar el gasto de 2.594,26 € con cargo a la partida 0400.226.335.00.08 del presupuesto de este año, y el resto, esto es, 3.891,40 €, con cargo del presupuesto del 2017.

Tercero: *Facultar al alcalde para firmar el contrato administrativo en base a las condiciones anteriormente citadas.*

11.-RUEGOS Y PREGUNTAS

11.1- KULUNKA HAUR ESKOLA

Aitor Zubizarreta informa que la situación de KULUNKA es un tanto complicada por falta de matriculaciones. Plantea la posibilidad de tratar en la próxima comisión informativa el hacer una campaña divulgativa que anime a la gente a matricular a sus hijos/as en el centro.

Josu Ezkurdia le responde que desde este ayuntamiento se está en disposición de hacer lo legalmente posible para ayudar a ese o a cualquier otro centro y que no tiene problema alguno de aceptar la propuesta, aunque, añade, necesita una mayor concreción.

El alcalde hace saber que él no ha tenido conocimiento de la situación hasta el pasado 11 de julio y que inmediatamente puso en conocimiento de ello al propio Aitor y a los miembros de la comisión de Gobierno y Finanzas. Significa que, dado el poco tiempo transcurrido, no ha podido hacer muchas gestiones para tratar de ayudar en solucionar el problema; pero que desde entonces está en contacto con el Gobierno Vasco para ver qué posibilidades existen.

11.2. APARCAMIENTO DE SANTA MARINA

Aitor Zubizarreta dice que tras el cierre de el aparcamiento de Santa Marina se han tomado una serie de medidas (habilitación de nuevos aparcamientos en distintas zonas del municipio y permitir aparcar en Arbiñoste) con las que considera se da prioridad al vehículo y se deja en un segundo plano al peatón. Estima que el asunto debe de ser trabajado entre todos, que merece una reflexión más profunda.

Josu Eskurdia le responde que con el cierre de “Santa Marina”, asunto que fue tratado en distintas comisiones, el municipio se ha visto privado de unas 80 plazas de aparcamiento, que en distintas zonas del municipio se han habilitado un total de 40 plazas y ahora se quiere ver si con esas 40 plazas es suficiente o hay una necesidad real de más plazas. Dice que antes de tomar cualquier decisión se hablará con los grupos municipales, a los que se les dará traslado de los distintos planteamiento, y con los que se tratará de llegar a un consenso antes de habilitar ningún aparcamiento. En cuanto a lo de Arbiñoste, señala, se ha habilitado para dar respuesta a los días en los que más confluencia de gente hay en el municipio y se quiere ver qué uso se hace de ello.

Aitor Zubizarreta considera que hay que concienciar a la gente para que no tenga porqué dejar el coche al lado de su casa cuando las distancias son cortas.

Josu Ezkurdia insiste en que se quiere ver el resultado de las medidas adoptadas hasta ahora, cómo las mismas responden a las necesidades planteadas por los vecinos y que, si así resulta necesario, no tiene inconveniente alguno en volver a lo de antes.

Rafael Bernal estima que es el momento de replantearse el problema de la movilidad en el municipio, de hacer un estudio serio y actuar en consecuencia.

11.3.- APROBACIÓN PRESUPUESTOS

Aitor Zubizarreta recuerda que cuando se aprobó el presupuesto de 2017 se acordó que con el presupuesto de 2018 de empezaría a trabajar en junio y se abriría un proceso participativo.

Josu Ezkurdia le responde que el trabajo “del día a día” le ha impedido cumplir con el calendario, que no obstante en la comisión informativa de julio ya hizo un descargo del estado de ejecución del presupuesto 2017 en aras a poder ir preparando el presupuesto de 2018 y que en la comisión de setiembre empezará a tratarse el asunto para poder aprobar un presupuesto con el consenso de todos. Señala que dos son los objetivos marcados: aprobar el presupuesto en plazos legales y con el mayor consenso de todos.

Aitor Zubizarreta le pregunta si no va a contar con la opinión de los vecinos.

Josu Ezkurdia le responde que su grupo ya mantuvo en su día reuniones con vecinos y grupos y asociaciones del municipio; así como que en esas reuniones se recogieron propuesta y sugerencias que serán tenidas en cuenta en los presupuestos de los próximos años.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:25 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.

